

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 584/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea Javier Hernando García jaunak Ekonomia Garapenaren zuzendari kargua uzteari

Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 8ko 495/2015 Erabakiaren bidez, Javier Hernando García Ekonomia Garapenaren zuzendari izendatu zen.

Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailaren egitura berrian, Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan onartu duen foru dekretu baten bidez, Ekonomia Garapenaren zuzendaritzari izena aldatu zaio eta izen berria Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritza da, egokiagoa baita bere eskumeneko jardute arloa adierazteko.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 eta 40.7 artikuluetan eta uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren 9 eta 11. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio goi karguak eta konfiantzazko gainerako langileak izendatzea eta kargutik kentzea, betiere sailtako diputatuen proposamenak hala eskatuta.

Horregatik, Lehenengo diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Javier Hernando García jauna Ekonomia Garapenaren zuzendari kargutik kentzea Foru Administrazioiko beste kargu batean aritzeko, egindako zerbitzuak eskertuz.

Bigarrena. Erabaki honek 2019ko irailaren 25etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 24a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehenengo diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatua

MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO